

bere burua ikusiaz gogaitu be, ta azkenez, Guatemala'ra biurtu zan barriro, ango parroki baten zerbitzuko jarririk.

Bigarrenenez etorri zanean, Arrasate'n geratu zan, bere ama zaarraren ondoan.

Au il jakonean, osasunez ondo ez ebillela-ta, Oñati'ko «Residencia»-ra aldatu ta antxe bizi izan da azkenerarte.

Joandako abuztuaren lenengoetan lez, biotzetik batez be txarto aurkitzen zalako, Donosti'ra eroan eben, eta an emon eban azken-arnasa, 1979-8-17'an.

Biaramonean, arratsaldeko 7'etan, eortz-illeta bikaiña ospatu zan Arrasate'ko San Juan eleizan, konta-ezin ala adiskide, euskal idazle ta olerkari bertan zirala.

Altaran giñan gu be, ogetaz apaiz ta lekaideok, Argaia gotzain jauna buru, aren arima alde Jainkoari eskiñi geuntson alkar-mezatan.

Eliz-gizon zintzoaren gorpuari ortu santura lagundu ostein, ainbat lagun, adiskide miñi eskua estutu geuntson biotzez.

Goian bego gure lankide jatorra, ta lagun begigu bertatik guztioi euskal arloan.

IDAZLE

Arrasate'n jaioa zan Zaitegi, 1906-7-26'an.

Umetatik ekian euskeraz.

Jesuita karrera ikasi eban Durango, Loiola, Oña'n eta Belgika'ko Marneffe'n; ondoren 1935'an apaiztu eben.

Karrera bitartean, leen eta orain, arrisku aundi samarra izan oi da su-bazterrean, gurasoen aotik ikasia, aitzuteko. Asko ta askori beintzat olan jazo jake.

Zaitegi'k, berekiko, onela: «1924'garren urte-tan 'junior' bezala latin, eladera ta elertiak ikasten ari ginen euskaldunok, euskaltzale gertatu ginen: ixileko eragile neu izan nintzen. Kaputxino ospatsu batek idatzitako liburuxka bat irakurri genuen euskaldunei buruz; eta gure buruetaz iabe egin zen euskal-egia. Leenik Ibiñagabeitia-tar Andima-k eta biok irakurri genuen... Irakurri-ala, auxa esan nion gure Andima zenari: gu geu euskaldun gara, izan ere, ta euskera ikasi egin bear dugu. Egia esateko, ezkenuen euskera aazturik erabat, galduxe baizik. Liburuxka ura izan ezik, eztakit euskaldun bezala iraungo ote genukeen».

Liburu batek, lagun batek, zelako mesedea egin oi dauskun sarri!

Orduantxe eratu eban talde trinko bat euskal zelaian lan egiteko suak jotakoen artean: Andima, Lauaxeta, Iñaki Goenaga, P. Muxika, Larrañaga, Argarate, Zubiaga, ta abar, aldiaren joanez ainbat liburu ta lan eder osotu dauskuezanak. Indarrak indarra ekarten.

Besteak beste, ona Zaitegi'ren liburu batzuk: 1) *Kizkiña* (RIEV, 1933, 60'or); 2) *Ebangeline* (Gautemala, 1945), H. W. Longfellow'ena, euskeraz; 3) *Goldaketan* (Mexiko, 1946), olerki-bilduma; 4) *Sopokel'en Antzerkiak, I* (Mexiko, 1946); 5) *Abere-indarra* (Benavente-Zaitegi-Andima), 1950' gneko «Euzko-Gogoa»-n; 6) *Bidalien Egiñak* (Zarautz, 1955); 7) *Sopokel'en Antzerkiak, II* (Baiona, 1958); 8) *Adizki berenkoiak Olabideren Itun Berrian* (Euzko-Gogoa'n, 1958); 9) *Berriz ere goldaketan* (Gautemala, 1962), olerki-bilduma; 10) *Platon'eneko Atarian* (Donosti, 1962); 11) *Medeia* (Euzko Gogoa, 1963); 12) *Platon II, Gorgia* (Donosti, 1977); 13) *Platon III, Eutifron eta Sokrate-ren Apologia* (Donosti, 1978).

Platon'i buruzko iru liburuok, griegotik euskerara biurtuta, Euskal Ikastola Nagusirako gura zituan, ortarako liburu-sail galant bat osotarik.

Nik, igazko Gabonetan eta aurtengo maiatzean, Lemoa'n bizi dan Demetrio Ayerbe'rekin, egin neutson ikustaldian, Platon itzuli ta itzuli ikusi neban, beiñola Loiola'n euskal idazle arein artean artutako asmoa, au da, gerker eta latindar klasi-kuak euskeraz jartekoa, aurrera eroan naita.

Langille amorratua zanik, ba, ezin geinke ukatu.

Onezaz gaiñera, izan be, eundaka artikululu ditu Bilbao'ko «Jesus'en Biotzaren Deya»-n, «Yakintza»-n, «Euzko-Gogoa»-n eta abar... prosaz eta bertscz egiñak.

Asiera-asieratik, zentzun betez taiuatua zan «Euzko-Gogoa»; euskera eder, garbi ta jaseko-an beti.

Idazleai begira, «elite» gain-gaiñekoa eukan bere mendea.

OLERKARI

Geroago, idazle ona izango danak, geienez beiñik-bein, olerki edo itz-neurtuetan egin oi ditu bere lenengo saioak, len-intziriak esan geinke.

Onelantxe Zaitegi'k be.

«Jesus'en Biotzaren Deya»-n asi zan idazten, ikasle zala, ta koplatan asi be.

Gerokoan olerki eder asko biribildu euskuzan, eta argitaratu, «Yakintza»-n, «Euzko-Gogoa»-n eta aitatu ditugun olerki-txorta bietan.

Irakurriak zitun klasikuak, naiz gerkarrak eta naiz latiñak, baita asko euskerara itzuliak be.

Erroz ekian, beraz, antxiñakoen ederkera.

Eta irakurte ortatik, jakiña, berari be zerbait erantzi.

Zaitegi'ren neurtitz-lan asko klasiku-bidez osotua dagoz. Pentsamentuz bete-bete, biotz-ondoosentikor, euskera txukun bizitan.

(15n. orrialdera)